



**ERRETERIA
UDALA**
Hezkuntza / Educación

Errenteriako Udala

Zbk./ Nº 2022-4591

Data / Fecha 2022/09/26 08:45

Irteera / Salida

Espediente zk./Nº Expediente: 2021SDBD0037 **Erreg. data/Fecha Reg:**
Erreg. zk. / Nº Registro: 000000
Gaia/Asunto: 2022 DIRULAGUNTZAK: 3.2 LERROA: IGEAK - HEZKUNTZA
Eskatzailea/Solicitante: SDBD **NAN(IFK)/DNI(NIF):** 90909090A
Kokalekua/Emplazamiento: ERRETERIA **Dekretu zk./Nº Decreto:** 2130

JAKINARAZPENA

Jakinarazten dizut, Hezkuntzako zinegotzi delegatuak, 2022ko irailaren 23an, ondorengo dekretua eman duela:

AURREKARIAK

Alkateak 2021ko azaroaren 26ko datarekin (3122 dekretu zkia), Errenteriako Udalak 2022 urtean dirulaguntzak ematea arautzen duten oinarri orokorrak onartu zituen.

2022ko urtarrilaren 28an (199 dekretu zka.), Hezkuntza Departamentuko Zinegotzi Delegatuak emandako Ebazpenaren bidez egin zen 2022 urteko hezkuntza arloko programetarako dirulaguntzak emateko urteroko deialdia. Deialdi horrek, besteak beste, ondorengo dirulaguntza lerroa jasotzen du: 3.2 Ikasle Guraso Elkarteak (IGE).

Hainbat elkartek urteroko jarduerak egiteko diru-laguntza eskatu dute.

Hezkuntza eta Gazteriako teknikariak 2022ko uztailaren 20an txostena eman du.

Balorazio Mahaiak 2022ko uztailaren 27an egin du proposamena.

Herritarrak Batzordea 2022ko irailaren 19an jakinaren gainean jarri zen.

Kontu-hartzaileak 2022ko irailaren 23a datan espedientea fiskalizatu du,

ZUZENBIDE OINARRIAK

- 38/2003 Legea, azaroaren 17koa, Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorra.
- 887/2006 Errege Dekretua, uztailaren 21ekoa, 38/2003 Dirulaguntza Orokorrei buruzko Legearen Erregelamendua.
- Errenteriako udalean dirulaguntzak ematea arautzeko udal ordenantza (GAO 2015/08/10).
- Errenteriako Udalak, 2022 urtean eta 2022-2023 ikasturtean, dirulaguntzak emateko Oinarri Orokorrak, 2021eko azaroaren 26an Alkateak emandako dekretu bidez onartu ziren.

Horregatik guztiagatik, Udal honetako Alkateak eskuordetu dizkidan eskumenak baliatuz, eta Udal aholkulari juridikoak espedientean jasotako dekretu-proposamenari emandako adostasunarekin.

Honen bidez,

EBATZI DUT



**ERRETERIA
UDALA**
Hezkuntza / Educación

1.- **Dirulaguntzak ematea** jarraian aipatzen diren guraso elkarteei, 2022 urtean egingo diren Hezkuntza departamentuko programetarako (3.2 Dirulaguntza Lerroa: Ikasle guraso elkarteak - IGE):

GURASO ELKARTEA	IFK	KOPURUA
BIZARAINGOAK GURASO ELKARTEA	G20321592	3.173,55
KOLDOKIDE (KOLDO MITXELENA)	G20052080	3.283,75
APYMA TELLERI	G20440558	3.085,40
AMPA EGILUZE ERRETERIA	G20310637	3.085,40
ZERUERTZEA-KOLDO MITXELENA BH	G20048203	3.371,90
		16.000,00 €

2.- Aipatu gastua **Xedatzea** 1.0630.471.02.326.20 (7464)-2022 partidaren kargura (A-92-2022).

3.- Hasieran elkarte bakoitzari emandako dirulaguntzaren %60a ordaintzea, aurrerakin gisa; betiere, aurkeztutako jarduera programa gauzatzen bada.

4.- Gainerako %40aren ordainketa, dokumentazio hau 2023ko urtarrilaren 31a baino lehen aurkeztearen baldintzapean egongo da:

- Dirulaguntza jasoko duen programa edo jardueraren memoria.
- Diru-sarrera eta gastuen balantze ekonomikoa.
- Egindako gastuaren justifikanteak (fakturak) eta horien zerrenda.
- Dokumentazio grafikoa (kartelak, programak) edo ikus-entzunezkoa.
- Elkartearen edo entitatearen diruzainak izenpetutako ziurtagiria, non jasotzen diren diruz lagundutako edo programatutako jarduerak finantzatzeko laguntza guztiak; bai entitate publikoek zein pribatuek egindakoak, zein publikoak orokorrean.

5.- Ordenantza arautzailean edo dirulaguntzaren emakidan adierazitako baldintzaren bat ez betetzeak, dirulaguntza berrikustea ekarriko du, eta, hala badagokio, emandako diru kopurua jaistea edo kopuru osoa itzuli beharra ere bai.

Gainera, aplikagarria den araudian agertzen diren kasuetarako, bidezkoa izango da jasotako diru kopuruak itzuli beharra, eta dirulaguntza ordaintzen den unetik itzuli egin behar dela erabakitzen den data arteko berandutza interesak eskatzea ere.

6.- Udal Aurrekontuaren kargura dirulaguntza jasotzeko, beharrezkoa da erakunde edo pertsona fisiko



**ERRETERIA
UDALA**

Hezkuntza / Educación

onuradunek, zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzza eguneratua izatea, legeak horrela eskatuko balu.

7.- Ebazpen hau elkarte interesatuei jakinaraztea eta Udal ontuhartzaitzari berri ematea.

Erabaki hau behin betikoa da eta administrazio bideari amaiera ematen dio. Dena den, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jar dezakezu, edota egoki deritzozun beste edozein errekurtso.

NON: dagokion Administrazioarekiko Auzien Epaitegia.

EPEA: bi hilabetekoa, jakinarazpena jaso eta biharamunetik hasita.

Nolanahi ere, nahi izanez gero, aurreko idatz-zatian adierazitako administrazioarekiko auzi-errekurtsoaren aurretik, berraztertzeko errekurtsoa aurkez diezaiokezu ebazpena eman zuen organoari hilabeteko epean, jakinarazpen hau jaso eta biharamunetik hasita.

Errenterian, sinaduran agertzen den datan
Idazkari Nagusia

Nagore Sarasola Otermin

- **BIZARAIN GURASO ELKARTEA (LANGAITZ)**
- **KOLDOKIDE GURASO ELKARTEA (KOLDO MITXE)
I.ZAPIRAIN**



Egiaztapen Kode Segurua/Código Seguro de Verificación: **ESKUc8b5158e-d604-4838-832c-af65831d0c5b**

Dokumentu elektronikoen honen paperezko kopiaren osotasuna eta sinadura egiaztatzeko, sar ezazu egiaztapen kode segurua egoitza elektronikokoan:
<https://uzt.gipuzkoa.eus?De=06710>

Compruebe la integridad y firma de la copia en papel de este documento electrónico, introduciendo el código seguro de verificación en la sede electrónica: **<https://uzt.gipuzkoa.eus?De=06710>**